

APARKALDI MUGATUA DUTEN ZONETAN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZA

Xedea

1. artikulua

Ordenantza honen xedea trafikoa ordenatzera eta hobetzera laguntzea da, zenbait herribidetan leku eta denbora aldetik ibilgailuen aparkamendua mugatzearen bidez, eta baita beteko dela bermatzeko neurriak ezartzea ere.

2. artikulua

Ordenantza honek arautzen duen "Lehentasunez iharduteko Bide Mota" zehazten da, BIDE URDINAK izenekoa.

Bide Urdinak

3. artikulua

Bide urdinek, BABES BEREZIKO ERDIGUNEA, mekataritza-ekipamendu handiena duten zonak eta erakargarrienak eta, beraz, Lehentasunezko Arretakoak" hartzen dituzte.

Bide urdinaren barruan sartutako kale batean ibilgailu bat gehienez ere ordubetera aparkatu ahal izango da. Denbora hori igarota, ezingo da inolaz ere kale horretan bertan aparkatu ibilgailua.

Ondokoak izendatzen dira bide urdinak, Ordenantza honek eragiten dituen legezko aparkalekuak adieraziz:

- 1.- Gudarien Etorbidea (32 plaza, 13 Barandiaran plaza aldera eta 19 Barena parke aldera)
- 2.- Urdaneta kalea (13 aparkaleku 60 minutukoak) + (2 aparkaleku 15 minututakoak)
- 3.- Joan Amezketak kalea (15 aparkaleku)
- 4.- Ordizia kalea (8 plaza)
- 5.- Joseba Rezola etorbidea (22 plaza geltoki inguruan) + (30 minutuko 6 plaza, Goierri kalearen atzealdean, haur parkearen ondoan)
- 6.- Goierri kalea (18 plaza)

4. artikulua

Jarraian adierazten direnek aparkatzeko denbora mugatzetik salbuetsita daude:



- a) Motozikletak, ziklomotoreak eta bizikletak; horiek behar bezalako guneetan aparkatu beharko dira.
- b) Beren kategorirako edo iharduerarako gordetako zonetan aparkatutako ibilgailuak.
- c) Autotaxi ibilgailuak, gidaria bertan dagoenean.
- d) Lehentasuna duten ibilgailuak, lanean ari direnean: osasun-laguntzakoak, publikoa, zein pribatua, suhiltzaileak, babes zibilekoak eta poliziakoak.
- e) Minusbaliatuen jabetzako ibilgailuak, beren titularrek gidatzen dituztenean eta Udalaren organo eskudunak luzatutako baimen bereziaren jabe badira.
- f) Hileta-ibilgailuak lanean ari direnean.
- g) Beste edozein ibilgailu, dagokion espedientea bideratu ondoren erregimen berezi honi heltzeko premia egiaztatuz gero, horrela baimenduta badago.

Kontrola

5. artikulua

Ordiziako Udaltzaingoa arduratuko da, bere udalatzainen edo laguntzailen bitartez, aparkamenduaren kontrolaz aparkaldi mugatua duten zonetan.

Ordainketa

6. artikulua

Udal Ordenantza honek zehazten dituen zonetan aparkatzeagatik ez da prezio publikorik ordainaraziko, ezta inolako dirukopururik ordaindu beharko ere.

Zigor-erregimena

7. artikulua

Ordenantza honen edozein artikulua haustea, hala nola Udaleko Organo eskudunak ordenantza honi buruz erabakitako ebazpenak haustea, Trafiko Ordenazioko arau-haustetzat hartuko da eta, ezarritako legezko prozeduraren bidez, zigor-ezarpena eramango du berarekin.

Arau-hauste arintzat hartuko dira:

1. Aparkatzeko txartelean baimendutako denbora gainditzea.
2. Gehienezko aparkaldia amaitu ondoren hurrenez hurren kale bertan aparkatzea.
3. Mugatutako plazaren perimetrotik kanpo aparkatzea, beste bat edo batzuk baliorik gabe utzita.



8. artikulua

- a) Aurreko artikuluan tipifikatutako arau-haustek trafikoa eta aparkamenduaren ordenaziorako zein hobekuntzarako traba eta eragozpen larri direnez gero, berek bakarrik bideratuko dute udal aginteak gaizki okupatutako herri-leku hori berriro erabilgarri utz dezan, ibilgailua jasoz eta udal-gordailura eramanez, ezarriko den diru-zigorra kontuan hartu gabe (Araudiaren 93. art.).

Halaber, Trafikoari, Motoredun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide-Segurtasunari buruzko Legearen 70. eta 71. artikuluetan, eta Zirkulazio Araudi Nagusiaren 90. eta 91. artikuluetan eta aipatutako Legearen 7. eta 38. artikuluetan agindutako kasuetan jasoko da ibilgailua.

- b) Aurreko atalean aipatzen den ibilgailua erretiratzeko gastuak jabearen kontura izango dira, eta berak ordaindu beharko ditu edo ordainketa bermatu egin beharko du, ibilgailua itzultzea nahi badu, behintzat.

9. artikulua

Trafikoari, Motoredun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide-Segurtasunari buruzko Legearen Testu-atala garatzen duen martxoaren 2ko 339/1990 Errege-Dekretu Legegilearen V. tituluan, eta legezko gainerako xedapen osagarrietan erabakitakoaren indarrez zigortuko dira arau-haustek.

Xedapen gehigarriak

Lehena.- Ordenantza honek arautzen duen aparkaleku mugatua urtean zehar egongo da martxan, astelehenetik ostiralera, goizeko bederatzietatik ordu batak arte, eta arratsaldeko lauetatik zortzietara, eta larunbatetan goizeko bederatzietatik ordu batak arte.

Bigarrena.- Ordenantzak aldatzeko izapideak bete beharrik gabe eta dagozkion txosten teknikoak egin ondoren, Udalbatzarraren akordioaren bidez, iada erabakita dauden bideetako edozeinentzat aparkaldi mugatuko egunak eta orduak aldatu ahal izango dira.

Halaber, eta prozedura berdinari jarraiki, 3. artikuluan adierazi diren aparkaldi mugatuko bideak aldatu ahal izango dira, gehiagotuz edo murriztuz, eta baita berriro finkatu edo kendu ere.

Ordizia, 2015eko apirilaren 10a
ALKATEA, IDAZKARIA,

